

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Andoni Azkarate Larrañaga

*Antzuola
Gipuzkoa (1932)*

Aurkibidea



Biografia



Uzarraga auzoko Azkarate baserrian jaio zen 1932an. Aita Azkarate bertakoa zuen eta ama Ugarrilagazpikoa baserrikoa. Zortzi seme-alaba izan zituzten, Andoni zaharrena. Uzarragako eskolan ibili zen sei urterekin hasi eta hamarrera arte eta gero Maristekin ikasi zuen kolean hamahiru urtera arte. Geroago, hamasei urtera arte eskola nazionaletan ematen zituzten gau-eskoletara joan zen. Akinibaiko Simona Laskurainekin ezkondu zen eta bost seme-alaba izan dituzte. 33 urte izan zituen arte baserrian egon zen. "Hilaturas de Bergara" Antzuolako lantegian lan egin zuen hiru urtez; beste hiru urte Fagorren; eta handik aurrera Goizper lantegian, erretiroa hartu arte.

Zintak

ANT-079

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-05-20
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa

ANT-080

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-05-20
- **Iraupena:** 15 min
- **Euskarria:** MiniDV

ANT-117

- **Proiektua:** Antzuolako toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pavo Nuñez, Kristina
- **Data:** 2004-01-01
- **Iraupena:** 21 min
- **Euskarria:** Mini Disc

Pasarteak

1. Artale gainean belauniko

- **Erref:** ANT-079/003
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:01:30. **Bukatu:** 00:04:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Uzarraga auzoko eskolan ibili zen, Jose Maria Agirre maisuarekin. Maisuz gain, bizargin eta sakristau ere bazena. Sei urterekin hasi zen eskolan. Erdaraz izaten zen. Erdaldun maisu batek artale gainean belauniko egotera zigortzen zituzten euskaraz egiteagatik. Gurasoen kexengatik utzi zioten zigor hori ezartzeari.</p>

Transkripzioa

- Eskolan nun ibili zifan?
- Hemen Uzarragan, leheningo Uzarragan hemengo auzuan. Maixu bat euen hor bertakua.
- Zela eueken izena?
- Jose Maria Agirre. Zan maixua, barberua, sakristau, barbero, danera itten ban.
- Hori Antzuolatarra zan bera?
- Bai, Antzuelako semia zan.
- Zuk e... zenbat urtekin hasi zifan eskolan?
- Ni sei bat urtekin.
- Gerria akabo barri, ezta?
- Bai, akabatzen, akabatzen daola.
- Eskolak erderaz, euskeraz edo zela?
- Erderaz, erderaz, erderaz eta erdera fuertia. Orduen euskeria ittia debekauta eta gauza horrek...
- Zuek zigorrik izaten zeuein euskeraz itteagatik?
- Bai horixe.
- Zueri ze emuten otsuen, anillua edo?
- Hemen ta kalien behintzet bai, anillua eta arta alien gaignien belauniko be bai.
- Arta alia belaun azpitan jarritta?
- Bai, holako zerak, eta gero ba kastiguak, bata bestiarri zera pasatzeko, holako tarjeta moduko zer bat euskera itten ebanari ta gero ba harekin astien azkenian ba zer bat, betik tarjeta gorrixa bezela edo enfin!
- Ez zan izaten eguneroko zera, astien akabera zan?
- Bai, astia akabera zein geratze jakon haura, ba horixe, tarjeta bat, bueno, betik zerak, rekreora ez ertetzia, edo holako zerak. Txorradak baiña bueno, danok...
- Arta alia belaun azpitan ifinita, ...
- Baiña hori gutxitan. Hori izen zan behin edo birritan bakarrik akordatzen naiz. Geo ba jentia keja in zan, gero umiak be bai eta zeorri segiduen itxi otsen baiña, orduan bai.
- Hori arta alien hori Antzuolar honek? Joxe Mari Agirre honek itten otsuen?
- Ez, beste bat zan, beste bat.

- Zela zan, goguan dakotzu maixu horren izena?
- Ez, ez naiz akordatzen.
- Zer zan, espaiñola?
- Bai, klaro.

2. Maristen eliza sutan

- **Erref:** ANT-079/004
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:04:01. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Zortzi anai-arreba ziren, Andoni zaharrena. Sarritan ezin zuen eskolara joan baserrian eginbeharrak zeudelako. Uzarragan hamar urte arte ibili eta gero kalera maristetara joan zen beste hiru urtetan. Maristen eliza erre zuteneko sua gogoratzen du. Eskola bukatu eta gero, baserrian lan gutxi zegoenean, gau-eskolara joaten zen kalera.</p>

3. Eskolara bazkariarekin

- **Erref:** ANT-079/005
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:08:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Auzo-eskolan adin ezberdinetako neska-mutilak elkartzen ziren gela berean. Beste auzo batzuetatik ere etortzen ziren ikastera, bazkari eta guzti. Hogeita hamar bat ikasle elkartzen ziren. Antzuolan ez zen guda handirik egon, baina Intxortako frontea bista-bistan zuten. Arrosario igande batean jasan zuten milizianoek erasorik handiena.

Transkripzioa

- Eskolan hamen Uzarragan-ta zenbat jente, zenbat ume alkarketan ziñain?
- Orduan? Orduan hemen dexente. Auzuek hiru auzotako zera, baiña gero orduan gerra ostia be bazan, eta kalien batzuk edo konforme ez, edo maixua falta-edo, aldatu eta asko itten ziren, eta maristak martxan ondo jartzeke zeren artien, eta hona etortzen ziren beste auzo batzutakuak, urriñagotik, heren bazkerixa eta zerak hartu eta egun dana hor pasatzen eben.
- Zenbat, ze egoten ziñain, danok klase baten?
- Bai danak, emakume eta gizakume.
- Eta edade danetakuak.
- Bai, bai, danetakuak, bueno, gu baiño lau urte zaharraguak, eta gure edadekuak eta danak.

- Eta zenbat jenteraiño juntaitten ziñain edo goguan dakotzu?
- Hor? Nik ez dakit ba. Hor hogeta hamar bat-edo, hogeta hamar bat bai behintzat, bai.
- Danak alkarrekin.
- Bai, alkarrekin.
- Eta etxian, klaro, zu garai hortan, hori zan gerria akabaitten eta gerra ostia hasten. Ze giro, hemen egon zan tirorik eta holakorik Antzuola aldien?
- Bai, tiruak, bonbak'e bai hemen gertuen jausi, hegazkiña-eta hor, akordatzen naiz zela baten zelako zuluak egon zan. Eta gero tirua hemendik bistan egon zana betik izan zan ba, Elgeta, Intxorta hori bista-bistan dauku hemen atzien.
- Hor izugarrizko burrukia egin zan ezta? Ezin izan zittuein bota ezta?
- Ezin bota, hor hillebetiak egon ziren, eta atakerik haundiña Errosarixoko domekia oktubrien lehelengo bat izan zan, esaten daue, orduan ez nintzan akordatzen baiña.

4. Italiarrak eta alemaniarrek Antzuolan

- **Erref:** ANT-079/006
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:08:46. **Bukatu:** 00:11:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Italiar eta alemaniar soldaduak zeuden Antzuolan. Aita eta senide batzuk Bilbo aldera joan ziren gerrara. Italiar soldaduek laguntzen zieten satsa ateratzen, meriendaren truke. Hildako italiar soldaduak kamioietan eramaten zituzten gauez, ezkutuan.</p>

Transkripzioa

- Hemen hau egon zan Bergaran -lehen esan dotena- frentia eta hemen Antzuelaraiño italianuak. Italianuak eta alemanak-eta ba zereraiño hemen soldauak egoten zien eta akordatzen naiz satsa etaratzen gurian, klaro, aitta zana, eta beste izeba batzuk aurrera junda zien, Bilbora, Bilbo aldera hanka in bihar izan eben, eta gurian geratu zan ba ama eta gero, zera, aittun anae bat. Eta italianuak, ba, harek basarritarrak edo harek ezaun eben nunguak zien, eta gurera, ta hor behien zela egoten zien, ba, grasa-ta ekartzen eben, hola grasa kamioiei-ta eitten otsen grasak-eta ekarri eta, gurian satsa-ta etaratzen lagundu eitten otsen, bai, udabarrixan lagundu eta meriendan bat edo emoten otsen ta... akordatzen naiz.
- Hori italianuak e?
- Bai, italianuak. Harek permisua eukiko eben egun guztirako eta etorri hona ta...
- Baserritarrei lagunketan?
- Bai, bai.
- Hori hemen bakarrik pasaitten zan, edo baserri gehixaotan be bai?
- A, ez dakit horixe, baiña harek etorri eta hementxe.
- Aspertuta, ezta, egongo zien.
- Bai, ba, aburriduta! Horrek lehenengo zerien egon zien. Gero azkenien horrek hemen atake gogorra egon eta asko hil zala esaten eben italianua hemen, Bergaratik zerera bittartien, Intxorta, Elgeta, zona hontan, Angiozar.

- Italiano asko hil zirala?
- Ba esaten eben hemen Antzuelan orduen barrutik kamiñua euana, eta kamioetan argixak eta argirik egon be ez asko kaletan baiña, tapauta zerien eruten zittuela hildakuak kamionkadak esaten eben. Hor atakia jo ta... Jentiak gutxi ikustearren eta, gabetan. Bai.
- Orduan esaten dozu horreik italiar soldauok etxera lagunketara bai baiña hemen astokixarik ez euen in.
- Ez, ez, hemen ez, Antzuelan-ta neu gogoratzen naizena ez zan /etzan/ ein.
- Zeuk sei urte zeukala soldau italianuakin zeu jolasien.
- Sei ez, lau urte artien. Lau-bost, lautik bostera, bost urte.

5. Gosetea eta kupoa

- **Erref:** ANT-079/007
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:11:11. **Bukatu:** 00:13:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraren ostean gosetea etorri zen. 1940. urtetik aurrera urte gogorrak etorri ziren. Baserrietan bazuten zer jan, baina kaletik senide eta senide ez zirenak ere eskean etortzen ziren. Diruak baliorik ez eta Legazpiko Patriziok belarra ebagitzeko segak ematen zien bere langileei, segen truke janariak lortu ahal izateko. Azkaratera etorri omen ziren, truke hori eskaintzen. Gero gari, arto, patata eta babarrun kupoak eman beharra etorri zen.

6. Kupo bidegabea

- **Erref:** ANT-079/008
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:13:19. **Bukatu:** 00:17:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Urte batzuetan, kupoa eman eta gero etxerako gauza bera estraperloan erosi behar izaten zuten. Kupoa ez zen izaten berdina herri denetan. Etxeko babarrun kupoa emateko, lehorte urte batean babarrunok erosi egin behar izan zituzten. Errotak prezintatu zituztenean, eskuzko errota txikiekin ehotzen zuten. Gero gauez euren errotan ehotzen hasi ziren, prezintoa askatzen ikasi zutenean.

Transkripzioa

- Etxerako lain geraketan xatzuen entregau eta gero?
- Nola, batzuetan bai, beste batzuetan ez. Ekarritta nago estraperlua, gurian famelixa haundixa eta Arabatik Araotzera pasau batzuk, gero Oñatittik beste batzuk hona. Eta hemendik Bergarara, zera be bai.
- (...)
- Zerera be bai, hemendik beste batzuk hemen Gorlatik mendiz Osintxuraino, garixa-ta. Holaxe ibillittakuak gara.

- Nik hori, klaro, ez zara leheningua ezta hamargarrena be kontu iguala kontaitten ezta? Eta nik esaten dot, hemen entregau in bihar bazan, Araban etzan entregaitten ala?

- Han asko izango zan-edo. Baiña gero hor entregatziokin ez ziren, herri danetan ez zebe berdin zertzen, entregatzen. Batzuk por ejenplo hainbeste area, hiru-lau hektarea dauzkala edo bi. Hemen Ormaiztegin por ejenplo, edo Zumarragan ba etxien ba hamar lagun egoten ziren jeneralien. Eta baten entregauko zan hogeia eta bestien hamar. Oseake hori herrittan egon zan hor...

- Hainbeste zera itten euen e?

- Bai. Eta txarrena zan tasako prezia izaten zana, erak nahi ebena pagatzen otzuen; igual garixak estraperluen egon, ez dakit orduan zenbat egingo ban, pezetia? Baiña zuri pagauko otsuen hogeia zentimo edo... eta "y a callar"

- Eurak Arabatik estraperluan ekarten eueilla euren kupua pagaitteko [...]

- Guri urte baten baba gorrixakin pasau jakun hori. Lehorte haundia izan zan, hau paraje, honek lur onek dire, fiñak dira baiña lehortian asko kastigau zittuanak, eta zerik ez ta babia, zenbat zan. Kilon batzuk behintzet entregatzeko erosi, negozio ederra. Eta holaxe, ta orduan errotak beste gauza bat zan, errotak orduan hemen zeren sozietadiak organizata, ba bi-hiru, hemen genden auzo hontan hiru-edo, beste auzuan beste sei-zazpin bat, eta errota bat geuria, baiña errotako harrixa euen prezintaut. Harrixari buelta emuten otsen guardia zibillak, inspektoriak etorten ziren eta gero prezinto bat alanbriakin zertu. Baiña gari puxka bat, ibili giñan era baten leheningo hasi giñanian etxian, hola errota txiki batzuk eskuakin eregindda Eibartik ekarri, eta ha noizko ogi bat itteko zertu. Eta azkenien gabaz atrebiu giñan, gabaz juten giñen errotara, hemendik jun aldixa eta bide txarrak gaiñera orduan. Hara jun eta gaberako ba, "gaur gabien hiru lagun juango gaittuk hainbeste garikin eta arto zera".

- Zeuen errotara?

- Geure errotara.

- Ikasi zeuein prezintua kentzen?

- Honbre, klaro, kurioxo-kurioxo eta kendu, harrixari buelta emun, ipini eta gero ixoten zanian berriz garbittu zepilluakin, inspektoriak etortzen baziren be, garbittu eta ipini, prezintua ipini eta goiz aldera etxera. Astuakin pare bat zorro edo erueten ziren, eta holakotxiak in bihar. Eta sekula ez giñustan... harek jakin bazekixen gutxi gorabehera, gu...

- Makiñabat lekutan itten zan hori.

7. Olio litro bat ehun pezetatan

- **Erref:** ANT-079/009
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:17:07. **Bukatu:** 00:20:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Babarruna urdaiarekin zen garai haietako jatordua. Olio gutxi zegoen, eta amonari medikuak janari garbiak agindu zionean, ehun pezeta ordaindu zuten estraperloko olio litro bategatik. 1940 eta 1941 urteetan haizetea eta uholdeak izan zituzten Antzuolak. Uholdeak kalera atera zuen dendariak gordeta zuten estraperloa.

Transkripzioa

- Jan orduan ze itten zeuein normalian garai hareittan? Eguneroko jatordua ze izaten zan?
- Babia, jenerala. Babia, urdaixa, orduan txarrixa-eta, olixua be gutxi, orduan olixua zenbat egoten zan ba? Hala be urte haretan topau ezindda, estraperluan.
- Hori be zer, Arabatik?
- Ez dakit, olixua estraperluan baiña dendarin batek beti eukitzen eban.
- Berak estraperluan ekarritta.
- Bai. Baiña olixua haura baiño geruago; nik ordurako euko nittuan... kuarentaikuatruea-edo nik ez dakit ba zer izango zen, berrogeta lauan edo holakon baten edo hirua, ordurako hamar-hamaika urte, eta gurian amandria zana, gero osatu zan baiña era bat euki eben gibelekua edo ez dakit zer eukiko ebela, baiña jana garbixa komeni. Olixua aginddu otsan medikuak, eta olixuori ba halako lekutan euela, halako dendetan. Haura be estraperluan, ixilixan, bai ixilixan, danak jakiñien baiña ixilixan. Jun eta badakitzu zenbat pagau zan? Ehun pezeta!
- Ehun pezeta?
- Ehun pezeta, bai, ehun pezeta! Litrua, litroko potia.
- Ehun pezeta!
- Baiña haura, amandria zanak ba, noizien behin tarrastaratxon bat bota, harendako bakarrik egoten zan haura, ha ez zeuen bestela jaterik. Hari dendarixari, holako bidoi bat zeguen, hari denporalia aguantauko otsan, zeatik ezin xekien hori eta. Holakotxe kasotan. Ehun pezeta orduan e?
- Baiña dendarixak, zuk uste dozu dendarixak hain karu erosi zittuala berak, prezio horretan ifintteko?
- Orduan estraperluan haura ekarri eta, hona orduko badakitzu, makiña bat eskutan pasauko zan edo nik ez dakit. Berak zenbat irabazten eben...
- Litruak ehun pezeta, neuk mutikotan pagaitten neben hori baiño bastante gutxiago.
- Klaro. Oin be bai, oin ez baiña.
- Ehun pezeta, zu! Zuk hamar-hamaika urte zeukatzunien, hori zan berrogeita... hirua-laua, edo bostian.
- Laua baiño lehentxuago, goseterik haundiña "cuarenta y uno-dos" bueno, txarrena orduen, hor lehen esan dana, orduan diruekin, eukanak euki ez, baiña eukanak okasiñua izaten zan dana. Eta gero hor kasuak pasau ziren kuriosuak Antzuelan, dendarixak-eta. Bata jun ta ez euela ezer, ez dakit zer eta badakit zer, eta gero zer, ur haundixa, hemen "cuarentaiuno" haize haundiza eta "cuarenta cuarentaiuno" ziren, bata edo bestia. Eta ur haundixa sartu zan eta dendak eta arrasau zittuen, zer danak.
- (...)
- Eta gero plazan bidoiok eta olixo zerok, azaldu ziren estraperluok. Ez eukeilla, ba klaro...
- Gordeta egozenak urak...
- Jota urak goittik behera.

8. Etxekoazienda

- **Erref:** ANT-079/010
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:20:07. **Bukatu:** 00:23:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Sei behi eta txahal mordo bat zuten garai haietan Azkaraten. Andoniren denborarako jada ez zegoen ardirik. Idiak ere bazituzten. Andonik jardun zuen karreterogintzan. Baserriko lana gogorra zen. Astoa betidanik izan dute, garraiorako eta kalera esnea eramateko. Txerri bat edo bi hazten zituzten urtean, arrautzak frijitzeko koipea lortuz.

9. Txokolatea lizundu

- **Erref:** ANT-079/011
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:23:05. **Bukatu:** 00:26:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Gaztaina denboran gaztainak oskolean batu eta etxera ekartzen zituzten. Aletzerakoan onenak jan eta besteak txerriei edo ganaduari ematen zieten. Udazkenean sagarrak eta intxaurrak ere izaten zituzten. Txokolatea ere oso eskasa zen gerraostean. Amonari gordetzen-gordetzen, batzuetan txokolatea lizundu egiten zitzaion. Arrazionamenduko ogia txakurrek ere ez zuten jaten.</p>

10. Nola-halako ogia

- **Erref:** ANT-079/012
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:26:29. **Bukatu:** 00:28:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Gari-urte txarretan, zahi askorekin egiten zen ogia. Ogi astuna izaten zen. Patata egosia ere gehitzen zitzaion ogiari. Ogiak harroagoa irteten zuen, baina uda sasoian fermentatu egiten zen.

11. Gereziendo tabakoa

- **Erref:** ANT-079/013
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:28:42. **Bukatu:** 00:31:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:

<p>Erretzaileentzat tabakoaren eskasia arazo larria izan zen. Andoniren aita etxeko ortuan landatu zuen tabakoa. Landare ederrak hazten ziren. Tabakoa prestatzean izan zituzten arazoak. Labean lehortutako gereziendo orriak ere erretzen zituen jendeak. Arrazionamenduko tabakoa gehitu zenean utzi zioten tabakoa landatzeari.</p>

Transkripzioa

-Gero orduko ez-kontuak ba, tabako-orrixana be bai. Gure aitta zanak-eta zelakuak pasau zittuen, tabako-orririk ez auen. Eta gero, raziñuan...

-Zer da hori?

-Tabako-orrixa, tabakua.

-A, tabakua, zela esan xatzu, tako-orrixa?

-Bueno, tabako-orrixa be esaten gauen. Eta raziñua hasi zan, baiña raziñuan be gutxi, eta gurian erreten ez zeбенak, auzokuak eta kriaуenak eta danenak kartillia eruan baiña artian be gehixau bihar izaten; eta ortun ipini zittuen azkenien zerak, tako-orrixa, sartu eta hazi itten zan, haundixa hazten zan. Baiña gero hori ximeldu eta elaboraziñua zela eta, gurian baten Eibartik bizi zan osaba batek, batek esan ebala, kajan, txapazko holako mermelada tapak kaja haundixa egoten ziren ba hor, estilo haretako kaja baten sartu orrixak, koiñak puska bat bota eta etxeazpikuan sartzia. Etxeazpikua da satsa, satsa itten geben ganauandik atzera atara eta lehelingo han egoten da bi hillabetien, hiruan igual, jota fermentatzen, jota lurruna botiaz.

-Bai, bai, sits pillia.

-Bai. Eta han sartuta aprobau zeбен sartu zeбен eta etara zeбен, jota lizunduta, bueno, hareik ziren langintzak harek.

-Engaiñau in zindduein orduen.

-Eta tabako-orrixa hasi aurretik, gure aitta zanak eta aprobau zittuein patata-ostrua, keixa-ostrua, ximeldu labien, eta apurtu erretzean baiña, zeozer, badakitzu?

-Bai, biziua e?

-Biziua.

-Eta ze erreten euein, zigarruan edo pipan edo zela?

-Zigarruen, zigarruen.

-Eta tabako-orrixa denpora askuen euki euein ortuan-edo?

-Bai. Ortuan, ointxe "por ejemplo" udabarrixen sartu eta udazkenien etara itten zan haura, eta gero upaltegixan txintxiliz ipiñi eta sikatzen zan. Haura ba zeozer, tako-orrixa, baiña gero hasi zanien poliki-poliki raziñua gehitzen eta, ba harekin, baiña [...]

-Eta noiz itxi zotsain tabako-orrixa ereittiari?

-Ba horixe zera gehittu zanien, tabako-orrixa gehittu zanien eta razionamientuan gehitxuago emuten hasi ziren ta.

-Ardaua eta egoten zan orduan?

-Bai, ardaua bai, ardaua edo ardau modukua. Orduan...

-Baiña ardaua razionamientuan ez euen emungo.

-Razionamientuan ezebez, gura ebenak ura, ura ugari, orduan ardauak-eta, bueno, ardaua sekula ez da faltaitten.

12. Argindarra eta ura

- **Erref:** ANT-079/014
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:31:44. **Bukatu:** 00:33:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Argindarra beti ezagutu du etxean. Teilatuko ura batzen zuen ur-andela orain dela 120 urte etxea berriztu zutenean jarri zuten, sukaldeko harraskara ura bideratuz. Baina uda partean ur bila joan behar izaten zuten astoarekin.

13. Arrosarioa eta udazkena

- **Erref:** ANT-079/015
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:33:22. **Bukatu:** 00:35:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

<p>Arrosarioa errezatzea eguneroko eginbeharra izaten zuten. Ganbara, ukuilu, sukalde...edonon lanean zeudenak entzuteko modura, mutikoren batek denen erdian jarrita errezatzen zuen denek entzuteko modura. Udazkena izaten zen sasoirik lanpetu eta neketsuena. Neguan etxean egin ahal zuten, baina udaran arropak garbitzera Uzarragako harraskara joaten ziren.</p>

Transkripzioa

-Hori obligaua, egunerokua.

-Eguneroko kontua zan?

-Bai, orduan hori obligaua izaten zan, errosarixo kontua be. Uda atzenian-ta, jo-ta akabauta lanian, bateko artua, garua, iria edo garua ekarri, harek pillau bihar ganbaran, beste batzuk behixak jatxi bihar illuntzian...

Familixia baeuan, baiña batzuk ganbaran garo pillatzen, beste batzuk zaltaixan, etxekoandria sukaldian afarixa gertatzen ta beste mutikon bat-edo erdixan, danak entzun daixen erresarixua, zertzen, errosarixua errezatzen, danondako altu, danok zertzeko.

-A, mutikuak, amandriak ez?

-Bai, mutikua, mutikua ya koskondua. Eta gurian akordatzen naiz baten, osabak: "zer, hor ez dok moztu-edo baten bat in?", "Eztakit ba!". Hola, badakitzu, aspertuta mutikuak. Baiña zan ha obligaua.

-Letania batzuk saltau in zittuan orduan?

-Bai, bai. Gehittu ez, gutxittu beti. Baiña, bai, gauza normalak. Orduan udazkena-ta gogorra izaten zan, gogorra. Idixekin, burdixekin ekarri bihar garua batetik, sagarra, bestia, bestia... dana. Udatzenien e... Urte guztia, baiña udatzena...

-Eta etxekoandrak erropak garbiketara-eta errekarra faten ziren edo?

-Ez, guk hemen errekarik... Esan dotena, Uzarragara. Uzarragan hor lehen [esan doten] eskolak eta elizia-eta dare.

-Labaderua dago?

-Labaderua, bai. Han itten eben. Oin, negu partian-ta hemen bertan, ura euen artien. Baiña pasatzen zan, ba, beti billurrez, ta azkenian gastau itten zan ura ta...

-Zuek puxetia edo lixibia edo itten zeuein?

-Bai, bai, bai, lixibia, bai Lixibia, bueno! hori... lixibia, biheko.

-Sutautsakin, ez?

-Bai.

-Jaboi merkiena.
-Bai. Errautsa ta...

14. Baserritik gaueko txandara lanera

- **Erref:** ANT-079/016
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:35:34. **Bukatu:** 00:39:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

<p>33 urte arte baserrian bakarrik jardun zuen, baina bizimoduak bultzatuta Antzuolako "Hilaturas Bergara"n hasi zen lanean. Gogorra egin zitzaion, lantegiko lana gauez zelako, eta etxekoei ere erantzun behar izaten zien. Hasieran astean sei gautan egiten zuen lan, gero bostean.</p>

15. Tenplarioak Uzarragan

- **Erref:** ANT-079/017
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:39:08. **Bukatu:** 00:42:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Hiru seme zituela hasi zen Arrasateko Fagor enpresan lanean. Hiru bat urte bertan jardunda, Antzuolako Goizperren hasi eta jubilatu arte bertan egon zen. Sulfatagailuak egiten edota muntatzen egiten zuen lan. Bost seme-alaba izan ditu, Akinibai baserriko emaztearekin. Uzarragan parrokia egon zen aintzina. Antzuolako kaleko parrokia eta Uzarragakoa "Parroquias Unidas" bezala jardun zuten garai batean. Tenplario monjeak egon omen ziren Uzarragako elizan.

Transkripzioa

-Eta gero etorri nintzan, okasiño sekulako ona egon zan, egon da harrezkero be, Mondrauera Fagorren han apuntau nitzan eta bueno orduan kanpotik jente asko etortzen zan eta ordurako famelixia neukan haundixa baiña ez euen holako pegarik. Ordurako neuzkan hiru seme. Eta gero han hasi eta gerotxuago bikixak, azkenien bikixak, azkenien bost, bost azkenien, seme-alaba. Eta Mondrauen hasi nintzan Fagorren eta han hiru urte eta piku in nittuan, hiru urte pasatxo eta gero aukeria egon zan hemen Goizperren Antzuelan, eta hor ba jubilau naizen artien...
-Goizperren in zittun azkeningo urtiak?
-Bai.
-Zer itten zeuen Goizperren?
-Danetik, danetik, tailler mekanizauan, eta montajien zerien be bai, hori sulfatadora asuntuen, eta ba bueno hantxe [...].
-Esan dozu bost seme-alaba euki (di)ttozuela; andria nungua dozu?

-Hementxe Antzuelakua. Akinibai baserrikua.
 -(...)
 -Ze ezkondu ziñain, hemen Antzuolan?
 -Bai, hemen Uzarragan.
 -Nork kontau nostan...
 -Ointxe 50 urte apirillian pasau dire.
 -Ezkondu ziñailla?
 -Bai.
 -Urte askotarako. (...)
 -Eskarrik asko.
 -Puritak uste dot esan nostala, lehen parroikia euela Uzarragan bakarrik.
 -Bai, zaharra, baiña antxiñako kontuak.
 -Eta gero parroikia pasau zala plazako elizara, eta urte batzutan egon zirala bi parrokiak lanian.
 -Bai, lehenauko erderazko izena, "Parroquias Unidas" bezela dago baiña, bueno.
 -Klaro, hau betik egon zan, gure etxien be bai, Tenplarixuak egon ete ziren, Uzarragan be bai. Uzarragan seguru Tenplarixuak, lehenagoko "Monjes" ze horreik, bai, hemen egondako zerak dira.
 -Zuk etxien be ezagutu (di)ttuzu?
 -Bai, esaten orduan egon zirela. Gero horreik ekarri zittuein zer haundixak. Gerratiak, hareik zertu zittuein, bota-edo in zittuein horreik, negoziatiak zirela, ez zirela, bazirela.
 -Horreik ziren argixak eta fuertiak. Eta aitta santuak ez zittun gura.
 -Bai, horixe, eta gero berak ingo eben igual baiña bueno. Hortara.
 -Orduen Tenplarixuen istorixia dakotzue hemen baserrixen, e?
 -Egon zirela, baiña ez dago "por escrito" ez dago, e? Uzarragan bai, Uzarragan Tenplarixua egon zala, baiña gero ba zer haundixak.

16. Txistulariak baserriz baserri

- **Erref:** ANT-079/019
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:45:18. **Bukatu:** 00:49:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Uzarraga auzoak San Juanetan ospatzen ditu bere jaiak. Bera gaztea zenean ospakizun handia izaten zen. Senide pila bat gonbidatzen zuten etxera eta Bergaratik trenetaz ekarritako legatza jaten zuten, gauza handia zen garai haietan. Legatza eta oilaskoa. Gero, trukean, beraiek gonbidatzen zituzten beste jai batzuetara. San Juanetan txistulariak baserriz baserri ibiltzen ziren bazkalostean. Kafea, kopa, zigarro-purua eta propina hartuta joaten ziren txistulariak.</p>

Transkripzioa

- Uzarragan jaixak noiz izaten (di)ttotzue?
- San Juanak. San Juan Bautista, ekaiña.
- Hogeta lauan?
- Hogeta laua.
- Eta zuek gaztiak ziñaiñian parranda haundixa egoten zan, edo?
- Bai, orduan haundixa. Oin hau guztia bajau da. Oin egunian bertan hor mezia eta, hurringo jaixan beste zerbat egoten da, luntx bat, eta holako

zerak. Zuhaitza, arbolia sartu eta holako zerak eta itten dire, baiña bajauta, lehenago haundixa.

- Ze izaten zan zure gazte denporako jai programia-edo?

- Orduan ordutik hona zihero alderandu da. Orduan gure etxetan oin beste diru ez zeuen esku artian baiña ni akordatzen naiz goizien trena, oin geldittu dago baiña, hemendik Bergara jun eta ez zan... urte guztian legatza, zera jango zan orduan legatza. Konbidatzia esaten dana, tiuak, lehengusuak, orduan lanakin ez euen oin besteko loturarik be.

- Baitta, halaxe da.

- Eta gurian baiña jente pillia zelakua! Bazkaittera.

- San Juan egunian konbidauak.

- San Juan egunien konbidauak. Eta beste bat Santa Ageda eguna zanien, udaberrixa, amanera juten giñan. Bergarako Pazkuetan beste tio batzuk, hara. Bestien bestera. Baiña gero hor be, ba San Juan egunian danak juntauten ziren eta sekulakua itten zan bazkerixa.

- Antzuolara trenien legatza ekartera fanda.

- Legatza, eta gero urte guztien gehio ez jateko.

- Estimau be halaxe izango zan orduen holako gauzia.

- Haura eta oillaskua. Orduan zan ba, buff!

- Hori etxien, eta...

- Etxien, gero hor itten zan ba mezie. Gero apaizak, abadiak, abade bat orduan betik egoten zan hemen, Uzarragan. Beste leku askotan bezala bertan fijo.

- Gaiñera Uzarragakua parroquia izango zan.

- Bai, parroquia, bertakua, kalekuak ez aukan ze ikusirik. Ze ikusixa horixe, "Parroquias Unidas" esaten dana. Hareik bere senittarte eta lagunok, sekulako bazkerixa. Uzarragan bertan, berriz, udaletxia orduan, geure, gaiñera udaletxian egon nitzan larogeta hiruan sartuta, orduentxe geratu ziren bazkaixa urtero San Juan egunian Uzarragan. Itten zan urteko paguori, bazkerixa, seguru bazkerixa.

- Zu udaletxera faten ziñan auzuaren orde?

- Ez, ez, botaziñotan irtenda. Baiña 83an e?

- Kontzejal?

- Kontzejal. Ba kontzejalak alkatiakin, txistularixak, aguazilla...

- San Juan egunian.

- San Juan egunian horreik danak.

- Uzarragan. Antzuolakuak ez dira San Juanetan jaixak, ezta?

- Ez, ez, horreik Trinitade eguna izaten zan dana, Antzuelakua.

- Orduan auzua, auzoko elizia moduen, hor mezia eta gero...

- Mezia, soñu jotia, txistularixak, erromerixia, sekulako fiestia itten zan orduan, bai.

- Orduan goizian mezetara fan, gero txistularixakin bazkaldu konbidau danakin...

- Gero berriz hara bueltau. Gero beste ohittura bat euen, txistularixak hor bazkaltzen ebenien hemen goiko baserriarrera behintzet, hemen lau-bost baserriarrera txistularixak etorten ziren etxerik etxe.

- Errondia itten euein?

- Bai, arratsaldian kafian ordu inguru hortan etorten ziren eta bestetara, emungo gotsen kafia eta purua eta kopa bana eta bueno.

- Gustora.

- Eta beste propinatxo bat ere emuten gotsen behintzet eta. Besten batzuek be zeozar emango otsen, eta ohitturak!

- Txistularixak baserririk baserri errondia?

- Hemen goixan ba hemen bost-sei... bost bat baserrittan bai.

- Sekula entzun barik neuken ohittura hori.

- Txistularixak tanborrakin bere zerien, itten euen hareik bere zirkuitua jakiñekua hori, bai.

17. San Juan 'Txikiak'

- **Erref:** ANT-079/020
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:49:26. **Bukatu:** 00:50:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>Abuztuaren 29an San Juan Txiki eguna ere ospatzen zuten Uzarragan, San Juan hil zen eguna omen da eta. 'Txikia' denez, ez zuten gonbidaturik eta izaten. Gaur egun meza baino ez dute ospatzen egun horretan.</p>

18. Osabari salaketa, gerran

- **Erref:** ANT-079/023
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:52:00. **Bukatu:** 00:53:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Aita gerrara joanda, etxean geratu ziren amona, udaleko zinegotzi zen osaba bat, ama eta hiru seme-alaba. Osabari, aitajaunaren anaia zenari, salaketa jarri zioten, eta 5.000 pezetako isuna ordaindu behar izan zuen. "Alzamiento nacional"ari ez laguntzea eta beste aitzakia batzuegatik salatu zuten. Gogorra izan zen isuna ordaintzeko dirua biltzea. Gogoan du salaketa agiriaren bukaera "Dios guarde a usted muchos años" jartzen zuela.

Transkripzioa

-Eta gero esan dozu tio hori be, kontzejala zala.
-Bai, gerria urten ebenien udaletxien euen tio, bueno, nire aittonaren anae bat.
-Bai, tio.
-Eta ha ba hemen geldittu zan; eta gero gurien ama eta gure amandria, gero umiak, eta gero ordurako neuzkan bi arreba ta gure amakin geratu ziren. Eta ha hemen geratu zan eta bueno, artian ezer pasau ez jakonien ba gustora, ezta?. Eta gero ba denunzia haundixak pagau bihar izan zittuan. Orduko bost milla pezeta eta.
-Bost milla pezeta?
-Bai bost milla pezeta. Bi bost milla pezetakuak be bai.
-Euki bai hainbeste diru?
-Bai, topau, nunbaitten topau in biher, dirua zela egongo zan ba, dirua? Orduan geuken apurrak hartu eta aurrera junda-eta. Enfin, nola hala.
-Ze denunzia jasoten zittun?
-Jasoten zittuen ba, "por no haber contribuido con el alzamiento nacional", eta ez dakit zertara abixau ta jun ez, ganauekin orduen armak-edo

Bergarara eruatia eta ez dakit nik zertzuk, eta ba zeozer, aitzakixak, horreitzek zerak ifiñi, aitzakixak ifiñi eta...

-Milla duro.

-Bai, gero azkenian papeletan ipintzen eben “Dios guarde a usted muchos años”. Baiña pagau ba horixe, gero aitta zanak etorri zanian pagau eban.

19. Aita kontzentrazio eremuan

- **Erref:** ANT-079/024
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:53:32. **Bukatu:** 00:55:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Osaba bati heriotza-zigorra jarri zioten. Eibarren bizi zen eta sindikalista zen. Azkenean libratu egin zen. Aita italiarrek espetxeratu zuten Laredon. Valladolideko kontzentrazio-esparru batean egon zen, beste euskaldun askorekin batera. Senitarteko moja batzuen laguntasunarekin, eta isuna ordaindu ostean, lortu zuten aita etxeratzea.</p>

Transkripzioa

-Gero beste tio batek be bai, harek “pena de muerte”kin egon zan.

Eibarren bizi zana, haura sindikatotan edo zeozetan lana itten eban eta

bueno, “pena de muerte”kin egon zan baiña librau egin zan nola edo hala.

-Eta aitta be preso egon zan hala?

-Bai, preso? Han zerien egon ziren, hor Laredon geldittu ziren. Eta gero...

-Gerria, akaberan?

-Akaberan, errendiu in ziren han. Italianuakin, italianuana errendiu ziren.

Bueno, italianuak, tokauko jaten parien. Eta gero handik Santa Esquina edo hor esaten daue, ez dakit, hor Valladolid aldera edo ez dakit nun, nun dauen hor ez dakit, nunbaitten Castilla herrixen. Han egon ziren euskaldun asko.

-Preso?

-Bai, kanpo konzentraziño bezela.

-Zuek bisittaitera edo faterik eukitten zeuein?

-Ez, ez, han ez.

-Zenbat denpora egon zan etxetik kanpo, aitta?

-Aitta, ez dakit, harek gerrara trenta y seisian jun eta haura nuebian edo noiz, baiña haura etxera etortzeko be, eskarrak orduan inddar puxka bat bazeuen. Gure aittajunen bi aizta moja zeren, bata Segovian eta bestea Valladoliden; eta mojak ba baten batzuk ezagunak eta nun handik nola-hala etxeratzia aitta zana kontsegiu euen. Pagau eben zera, multia, baiña behintzet etxeratzia kontsegiu euen.

20. Kartzelako kontuak

- **Erref:** ANT-079/025
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:55:02. **Bukatu:** 00:59:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerrara joan ziren bere senide guztiak bizirik itzuli ziren. Osaba Manueli Bilboko Eskolapiotako kartzelara 'paketea' eramaten zioten noizean behin. Salbokonduktoa atera eta trenez joaten ziren. Han ikusitako pasadizo gogorrak kontatzen digu. Beste zumarragar preso baten istorio bitxia ere kontatzen digu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com